


Ezpalak

JON TORNER

20 konpainiak parte hartuko dute Donostiako dFeria azokan



EKAINAREN 30ETIK uztailearen 4ra bitartean egingo da Donostiako arte eszenikoen dFeria azokaren 15. edizioa. Aurten 400.000 euroko aurrekontua izango du, iazkoa baino %25 txikiagoa. Hori dela-eta, kale ikuskizunik ez da izango. Dantza eta antzerki emanaldiak Victoria Eugenia, Antzoki Zaharrea, Gazteszena eta Lugaritzen eskainiko dituzte dFeria parte hartuko

duten hogeita hamar taldeek. Ikuskizunen erdiak estreinaldiak izango dira, horien artean Brasilgo Sutil Companhia de Teatroren *Avenida Dropsie* eta Ez Dok Hiru Biko Teatroren *Euskarazetamol*. Patxo Telleria eta Mikel Martinezen antzezlan hori izango da dFeria euskaraz egingo den bakarra.

Mutrikun egingo da Spraikada'09

SPRAIKADA Euskal Herriko graffiti lehiaketarako izen ematea ekainaren 30ean amaituko da. Baldintzak: 16 urtetik gora izatea eta zirriborroko testua euskaraz izatea. Parte-hartzaile guztien artean hamar finalista aukeratu dituzte eta uztailearen 18an publikoaren aurrean marraztu beharko dituzte euren graffitiak. Mutrikuko herriaren 800. urteurren programan sartu dute Spraikada'09, ospakizunetan gazteak ere inplikatu asmoz [www.spraikada.com].

Opera Lagunen Bilboko Elkarteak argi dauka: krisi ekonomikoari aurre egiteko modurik egokiena kalitatezko programazioa eskaintzea da. Hori helburu hartuta aurkeztu dute 2009-2010 denboraldiko egitaraua. Bi berrikuntza azpimarragarri: Giuseppe Verdiren *Falstaff* eta Benjamin Brittenen *Billy Budd*. Bi lan horiek lehen aldiz ikusi ahalko dira Bilbon. Denboraldia irailaren 26an hasiko da.

La Pez konpainia getxoztarrak jaso du Leioako Umore Azokako euskal kale ikuskizun onenaren saria, immigrazioari buruzko *El show de la Patera Rosa* lanarengatik. Kanpoko ikuskizunei dagokienez, Bartzelonako La Industrial Teatreraren *Rojo* obra saritu dute.

Artea eta Ikerketa laguntza deialdira aurkeztutako 370 proiektuetatik bederatzita bildu dituzte Gasteizko Montehermoso kulturunean. Batetik, Ion Arregi, Marcelo Exposito, Aurélien Froment, Nathaniel Mellors, Pia Pönieck, Lisa Tan, Irene Kopelman eta André Guedes artisten obrak jaso dituzte. Bestetik, Adnan Yildiz komisarioak hautatutako nazioarteko hamaika artista eta kolektiboren lanak. Abuztuaren 30era arte izango dira ikusgai.

Apurtu.org webguneak hedabide ugaritako 60 kazetari eta blogariren babesa jaso du. Euskal presoei eta tortura salaketei buruzko berriak ziren, besteak beste, biltzen zituen edukiak. Pasa den apirilaren 20an, online telebista ere martxan jarri zuten webguneko kideek. Handik egun gutxira, ABC egunkariak *Apurtu.org* ETArekin lotu zuen, eta atzetik eraso informatiko bat jasan zuen atariak.

● **Sareinak** blogeko (<http://eibar.org/blogak/sareinak>) kideek **Gaur8** aldizkarian, **literatur kritikaz**:

«Literaturaren normalizazioa ez da idaztearekin bakarrik etortzen. Teorizatuz eta ikertuz ere etortzen da, eta batez ere, irakurritz. Arazoa ez da kritikarena, ez dela irakurtzen baizik (...) Blogaren bigarren urteurrenean zerbait baloratu banuen, azkenean emakumeak idazle izatea lortu dugula izan zen; emakumeaz hitz egiten, idazten, kritika egiten, gozaten, barre egiten... eta espazio bat sortzen ari gara».

● **Anuntxi Arana Euskal Mitologiaz. Jentilak eta Kristauak** liburuaren egileak **Euskonews & Median**:

«Badabil hemen iritzi bat, dogma bat kasik, Euskal mitologiako pertsonaiak kristianismoak egin dituela gaizto; alegia, lehen onak zirela eta Elizak deabrutu dituela. Hori ez dela oso sinesgarria erakutsi nahi izan dut, izaki horien naturan dela aldi berean onak eta

txarrak izatea, edo noiz-nola. Eta hainbesterako indarra du bikoiztasun horrek, non kristianismoko pertsonaiak ere (deabrua eta Ama Birgina) gaizto-gaiztoa eta on-ona izatetik bikoiztasun izatera pasatu baitira euskal mitologiako kondairetan –Europako askotan ere bai, jakina–».

● **Zuhar Iruretagoiena artistak Berrian**: «[Ertibil saria jasotzean] oso zaila izan zen irribarre egitea, batez ere prentsaurrekoan. Argazkiek indar handia dute, eta gerora argazki jakina geratuko zela bagenekien: Ertibil lehiaketako hiru artista irabazleak Kultur diputatuari [Josune Ariztondo] babesa ematen. Ez genuen argi halako argazkirik ateratzea nahi genuen. Nik neuk ez dut ezer diputatuaren aurka, ez dut eza gutzen. Baina guk beste era batera sentitzen ditugu artea eta Rekalde aretoa, eta uste dugu politikariek ez dutela eskua sartu behar horretan».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

JON TORNER

Shakespeare apur bat, eta odol tanta batzuk

La tempestad. Santiago García / Javier Peinado
Astiberri (2008).
96 orrialde, koloretan. 16 euro.

AGIAN, kultura modernoaren historian William Shakespeare idazle eta antzerkigilearen *The Tempest* obrak inspiratu du bertsio gehien. *La tempestad* zientzia-fikziozko komikia horietako bat da eta, agian, 1611. urtean Londonen estreinatu zen antzezlanaren haren bertsioak ez ezagutzeak joko kanpo harrapa dezake irakurlea, bereziki liburuaren aurreneko partean. Niri behintzat hala gertatu zait. Iraganera egindako erreferentziak batetik, eta pertsonaia batzuen konspirazio asmoak bestetik, apur bat despistatu naute. Informazio gehiegi denbora-espazio tarte txikian.

Hasierako susto txiki hori gaindituta, istorioak erritmo bizi baina orekatuan egiten du aurrera. Momenturen batean pentsatu dut *Tintin ilargira bidean* edo antzeko abentura komiki bat neukala esku artean, baina Santiago Garciaren gidoiak eta Javier Peinadoren marrazkiek segituan atera naute tontalditik. Suntsitutako espazio-ontziko tripulatazaileei robot erraldoi batek lepoa nola mozten dien ikustean konuratu naiz oker nebilela, hau ez dela “gaiztoak zintzozen aurka” istorioñoña.

Pertsonaia (ia) guztiak dira zintzoak –inozoak–, euren amets eta asmo ederrekin, baina batez ere (ia) denak dira gaiztoak, botere goseak jandako gizasemeak. Alegia, izan daitekeela 3567. urteko istorio bat, bere espazio-ontzi eta robot supergaratuekin, baina baita 1611koa, edo 2009koa. Biolentzia eszena ugari daude komikian baina, zer nahi duzue esatea, ez dira desatseginak. Areago, odol jarieok ukitu komikoa

–“umore beltza” ere dei geniezaioke– dute. Tragedia eta komedia, Shakespearearen erromantzean bezala.

Ilustrazioei dagokienez, Javier Peinadok erakutsi digu eskola franko-belgikarraren oinorde duina dela. Dekortuak, espazio-ontzia, robotak... batzuek Edgar P. Jakobs *Blake & Mortimer* sailaren sortzailearekin alderatzen dute ilustratzaile madrildarra. Hergé eta André Franquin-ekin batera, Jakobs da askoren iritziz eskola franko-belgikarreko sortzaile inportanteena. Peinado multzo horretan sartzea gehiegitxo litzateke baina, egia esan, haren marrazkiek badute antzik Jakobsek egindakoekin. Lapitzaren zein koloreen erabileran antzeman daiteke hori.

La tempestad komikiaren animaziozko promozio-bideoa YouTuben zintzilikatu dute:
<http://www.youtube.com/watch?v=Hyr4OHYNeU0>



**BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKIN
SOLIDOAK KUADEATZEKO
MANKOMUNITATEA**

**MANCOMUNIDAD DE
BORTZIRIAK-CINCO VILLAS**

PARA LA GESTIÓN DE RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS



ANDUTZETA 15, 31760 ETXALAR, NAFARROA.

WWW.BORTZIRIAKZABOR.COM / BULEGOA@BORTZIRIAKZABOR.COM